

“PARIS EZ BESTERIK ZU BEZALAKORIK”

Koldo IZAGIRRE

Sorlekua lurralde berezia da: bertan galdu genuen hitza batzuek, bertan hustu genituen begiak kalean aurrenekoz, bertan hasi ginen bizitza gorrotatzen. Sorlekuan inoiz itzuliko ez den gure zati bat dago lurperatua.

Sorlekua topikoz betea dago.

Zer idatzi dezake batek hartaz? Hautzaroko oroitzapenak? Hirigintza zabar batek estaliriko zelaien lantua? Altza ez da leku txarra, zer esango dizuet nik, jatortasunari doluminak emateko.

Baina sorlekua ihesbide ere bada: onartu nahi ez dugun errealitate bat ukatzeko aitzakia izaten da maiz, gure triparen haztea edo gure ilearen galtzea, edo nik dakita zer bezala. Altzaren egungo errealitatea ez da erraza asimilatzen.

Nik maite dut ordea gaur egungo Altza.

Badakit batek baino gehiagok -irakurle pare bat izango ahal dut!- esango lidakeela ez zaidala batere zaila Altza hau maitatzea, bertan bizi ez naizenez. Balukete arrazoi tanta bat, hurbildik baino errazagoa izan ohi da urrundik maitasuna. Edo maitasuna aitortzea behintzat.

Duela gutxi, Lazkao Txikiren biografia ikuskatzen ari nintzela, soldaduzka Ceutan egina zuela jakin nuen, eta bertako arabiarrek “torroneak” esaten omen zieten gaztelaniaz euskaldunei, beti “etorri honea”-ka aritzen zirelako. Halaxe esaten ziguten guri Altzara heldutako lehen extremeñoek: “torrioneas”.

Baina Altza ez da Ceuta niretzako.

Jaio nintzen etxea ez dago, aldameneko Lardi baserriko zelaia Nerecan-ek hartu ditu, Santa Barbara ermita suntsitu zuten, Rotetan ezin da sagarrak ostu zuhaitzetatik, beheko errekek ez dakar urik...

Intxaurren bizi naiz, eta duela berrogei urte Altzak pairatu zuen bilakatze berdina ari da gertatzen gaur Altzaren auzo izandako honetan. Txukunago, kontrolatuago. Baina aldeak alde, hondamendi berdina sentimenduen mailan: metaketa, zementua, uholdekako biztanleria, Eroski erraldoia denbora labur Garberako baratzetan eta gaez erabilgarri ez den kutxazain automatiko bat, zer gerta ere.

Nik maite dut ordea Intxaurrondo berria.

Kutsatu egiten nau, amorratu egiten nau, ez dit aukerarik ematen idilikotasunetan galtzeko, ulertzen ez nauen jende maitagarria eskaintzen dit, nire patxadatik ateratzen nau eta noizean behin Centro Extremeñoan bazkaltzen dut lagun euskaldunekin eta Leku Eder-en erdaldunekin.

Intxaurrondon asimilatzen dut orain Altzan asimilatzeko denborarik izan ez nuen errealitate zabal, aunitz eta zaila. Eta ederra zait zuhaitz izena zuten muino garbiek errealitate konplexuagoak eskaintzea orain.

Ez ditut asko maite zuhaitz mota bakarreko basoak.

Reseña

“Como tú, sólo París” es un título suficientemente sugerente para adivinar el cariño con que Koldo Izagirre hablará de Altza, su terreno. Con la perspectiva que ofrece ver los cambios desde la distancia, es un canto a la pluralidad y a la convivencia diaria que surge de esa diversidad.